

Amama

E m i l i a r e n n

familia

Horregatik, abenduarekin batera kalean gabonak jarri dituztenean, zuen argazkiak agertu dira aurten ere. Inoiz baino gehiago. Inoiz baino taupada gehiago. Inoiz baino ohe huts gehiago.

Historian zehar Espainiaren mendeko izateari utzi dion herrialde bakar bat ere hartutako erabakiaz ez dela damutu ohar-tuta, adiskide batek liburu ederra argitaratu zuen duela bizpahiru urte, berak espainiarra izateari zergatik utzi dion azalduz eta horretarako ehun arrazoi emanez. Haietako bi oroitzen ditut bereziki urte sasoi honetan, euskal presoak gogoan ditudanean.

Caceres inguruko tabernari bat aipatzen du adiskideak liburuan, hark astero euskal presoen senide eta lagunei emandako babesa ahaztu ezinik. Izan ere, gorrotatzen den Espainia horren baitan bada maite den beste Espainia bat ere. Adiskideak izena ere gogoratzen ez dion Caceresko tabernari haren Espainia, eta haren antzeko guztiena.

Oroimena 80ko hamarraldiaren edozein larunbatetan pausatzen du adiskideak: negua da, gauak hartu ditu kaleak, eta Gasteizera iritsi dira, Extremadura aldera eramango dituen autobusa hartzera, urtean behin ikusten duen laguna preso daukaten kartzelaraino eramango duen autobusa. Urtean behin ezean, astero edota hamabostero autobus hura hartzen dutenak ere badira. Sakabanaketaren errepedeetan barrena egingo dute bidea. Kilometroen zigor erantsia bete beharko dute amaren besoetan negar egiten duen haurrak, hezurra kero eta makurrago izan arren autobusean orduak eta orduak igaro beharko dituen amonak, semearen ideiak arrotzak zaizkion agureak. Autobus hura hartzera kondenatu ditu nortak, eta osasuna, dirua eta urteak geratuko dira bidean. Astero sakabanaketaren 468.520 kilometroak beteko dituzte.

Batez beste 680 kilometro preso bakoitzaren sorlekutik. Urrun. Urrunegi. Hotz egiten du han. Espainian. Frantzia. Negua. Elurra. Errepideak. Istripuak. Dagoeneko 16 hildako utzi dituen erabaki krudela da sakabanaketa.

Igande goizaldean iritsiko dira Caceresko espetxearen atarira, eta bidaia luzearen ondoren, gaua ahal duten moduan igarota, begiak igurtziz aterako dira erdiak autobusetik. Beste erdiek Badajozera bidea egingo dute, hango harresien artean baitituzte gatibu lagunak eta senideak. Baina oraindik orduak geratzen dira bisitak hasterako, hotza zorrotz heltzen da hezurretara, eta bidaiariak taberna bakarti hartan bilatuko dute babesa. Atea zabaldu orduko, miraria. Hutsik egon arren, zain dute taberna, eta tabernaria. Extremadurako gazte hark ere ez du lo askorik egin, baina igandero bezala goizean goiz esnatu da sua piztu eta taberna zabaltzera, presoen senideak iristen direnean kalean eta izoztuta gera ez daitezzen, zakurren gisara. Elkartasunaren begiak ditu tabernariak. Ez du hutsik egiten. Eta argi dago ez duela kafe batzuek ematen duten diruagatik egiten. Suaren epelean babesten dira amak, haurrak, adinekoak. Barran, berriz, Espainiako egunkariak ikus daitezke, bezperakoak segur aski oraindik, eta beharbada titularretan bonbak, terroristak eta epaiak agertuko dira. Deabruak. Ez behintzat tabernariak ikusten dituen haiek. Amildegia handiegia dago batzuen eta besteen artean.

Senideek ere, gorrotatzen den Espainia horren baitan, maite den beste Espainia bat ikusten dute tabernariaren begietan, suaren epelean, taberna haren babesean.



Adiskidearen ehun arrazoietakoa beste bat, Manoli Vilas galiziarra da. 50eko hamarraldian, Nafarroara etorri beharrean Madrilerara joan balitz, gaur egun baino askoz espainiarragoa litzateke Manoli. Hemezortzi urterekin iritsi zen, gazteleraz hitz egiten jakin gabe, Castelao ezagutu gabe eta politikarekiko batere interesik gabe. Lan egin, ezkondu, bi haur eduki, eta lasai eta bakean bizi zen, besterik gabe. Gau batean, ordea, etxera indarrez sartu eta dena hankaz gora jarri zuten aurpegiak estalita zuten hainbat lagunek. "Nire semeak ez du ezer egin" esan zien Manolik, eta kafea eskaini zien haiek etxea miazten zuten bitartean. Galiziar adeitsu hark etakide putaseme baten etxean zer arriro egiten zuten galdetuko zuten segur aski poliziek.

Lege antiterrorista, inkomunikazioa, tortura eta kargurik gabeko askatasuna, hurrenkera horretan. Arrazoi zuen Manolik: semeak ez zuen ezer egin, eta laster utzi zuten aske, egundoak hartuta, negar malkotan, minduta, suntsituta. Lehenago ETAren komando bat desegin izanaz hitz egin zuten hedabide handiek ez zuten Manoliren semea aske utzi izanaz ezer esan. Politiko demokratik ez zen agertu herritar haren torturengatik kezkatuta. Ez da harritzekoa. Torturaren zulo ilunak ezinbestekoa du alderdi bateko eta besteko zinegotzien isiltasunarekin herriz herri antolatutako sarea. Hauen isiltasun konplizeak ahalbideratzen du edonor, edonoiz, edonon torturatua izan ahal izatea.

Manoliri, ordea, bihotza urratu zitzaion. Semeari horrelako basakeriak egiteko gai izan baldin baziren, beste hainbati ere antzekoak eta okerragoak egingo zizkioten, eta bera beza-

lako ehunka ama egongo zen, erraiak lehortu beharrean. Telebistan hizpide zuten konstituzioaren Espainia arranditsu hura dagoeneko ez zen lehengo bera galiziar zintzo harentzat. Zintzoa? Ordurako, ezta hori ere. Telebistan ikusten zuenez, gero eta gaiztoagoa zen: presoek senideei lagundu, euskararen alde dirua eman, manifestaziotara joan eta herriko abertzaleen zerrenda ere babestu zuten. Egun batean, ezingo zuela gehiago aurkeztu entzun zuten. Erakunde terrorista bateko kidea omen zen. "Deu mío... Eso nousotros?" zioen, sinetsi ezinik. Manoli emakume bera izango litzateke Nafarroan beharrean Madrilen bizi balitz. Den bezalakoa iritsi zen Galiziatik. Apala. Eskuzabala. Onbera. Beste batzuek atera dute zintzoen, demokraten eta kutsatu gabeen eremutik.

Bada, Caceresko tabernari haren bihotzarekin eta Manoliren zintzotasunarekin irudikatu izan dut beti Emilia de la Bodega, euskal preso guztien amama.

Ceutako espetxeko presoek eman zioten kargua aspaldi, eta harrezkero amama Emiliaren familia haziz joan da etengabe, urteek aurrera egin ahala bilobak ugaritzen ikusten dituenaren modu berean. Emiliaren bilobak, ordea, Manolirenak bezalakoak dira. Haiek zintzoen, demokraten eta kutsatu gabeen eremutik ateratzea eta urrun dauden harresien barruan sartzea erabaki du norbaitek bulego arrotzen batean.

Emiliak, ordea, Caceresko tabernari hark bezala, Manoli Vilas galiziarrek bezala, badaki ortze gabeko paraje mingotsetan gerizpean dituzten 645 gizon eta 119 emakume haiek buztinezko bihotz bana dutela barruan, eta ilun dena ilun den

Caceres inguruko tabernari bat aipatzen du adiskideak liburuan, hark astero euskal presoek senide eta lagunei emandako babesaren ahaztu ezinik. Izan ere, gorrotatzen den Espainia horren baitan bada maite den beste Espainia bat ere.





lekuan noizbait zelaiek berdatzen ikustearekin amets egiten dutela. Libertaterik ez dagoen lekuan libertatea idatzi nahi dutela. Horregatik, maite ditu, maite dituela esatea ere debekatu nahi dioten arren.

"Bakarrik ez egotea da garrantzitsuena preso batentzat", irakurri diogu oraintsu Mixel Sarasketari hedabideetan. Hogei urte egin zituen preso, eta 54 aldiz aldatu zuten espetxez. Badaki zerbait. Emiliak ere bai. Badaki bakarrik ez egotea dela garrantzitsuena biloba bakoitzarentzat. Horregatik, Barrainkua kaleko bere etxetik zaintzen ditu euskal preso guztiak, amamaren maitasunarekin. Gero eta lan gehiago du, beraz. Gero eta galtzerdi gehiago ditu egiteko. Gero eta argazki, liburu eta postal gehiago bidaltzeko. Agendak josi. Gominolazko lepoak egin. Gero eta kandela gehiago piztu behar. Gero eta biloba gehiago zaintzeko. 764 abendu honetan. Denak gatibu. Hamabost solik Euskal Herrian. Gainerako guztiak, urrun, oso urrun. 595 Espainian. 154 Frantzian. Baina hurbil sentitzen ditu Emiliak, eta osasunez makal dabilen arren, galtzerdiak josten eta samurtasuna idazten segitu nahi du, kandelen epeltasuna biloba bakoitzari helaraziz.

Abendu honetan ere, urtero bezala, kandela bat piztu du gabon gauean. *"Ziur nago espetxeetako ziegetan kandelaren berotasuna sentituko dutela"*, dio. Badaki baietz. Presoren bati askatasuna itzultzen diotenean, Emiliak hots egiten dio telefonoz, bazkaltzera gonbidatuz.

Emilia maitasun itsasontzi bat da kilometroen itsasoan barrena, eta gero eta handiagoa da galtzerdiekin, postalekin, brodatutako oihalekin, argazkiekin eta hainbeste samurtasunekin jos-

ten duen bela koloretsua. Handiegia, negu honetako haize erauntsia jasan ezin izateraino. Ekaitz gogorrek hondoratu du Emiliaren itsasontzia. 95 urte zituen. Galera mingotsa izan da amamaren familia osoarentzat. Baina maitasunarekin eta elkartasunarekin bukatuko duen ekaitzik ez da sortu oraindik herri honetan. Aurrerantzean, Sabin Etxetik pasatzen diren autobusetan ez da Emiliak prestatutako gozoki poltsarik ikusiko, baina elkartasunaren kandlek piztuta iraungo dute gerizpean. Caceresko tabernari gehiegi daude bazterretan. Galizia bihotzean duten Manoliz beteta daude euskal herriak. Espainiak gero eta biloba gehiago ematen dizkion Emilia de la Bodega guztiak bizirik segitzen dute ziega urrunetan euskal presoak geratzen diren bitartean.

Horregatik, abenduarekin batera kalean gabonak jarri dituztenean, zuen argazkiak agertu dira aurten ere. Inoiz baino gehiago. Inoiz baino taupada gehiago. Inoiz baino ohe huts gehiago. Buztinezko 764 bihotz. Inoiz baino gatibu gehiago. Inoiz baino salbuespen, ziega, gutun, ate, kilometro, gau, bidalaria, hotz, malko, zigor, kondena eta harresi gehiago. Badirudi abenduan samurragoak izan behar dugula, eta ahaztu egin behar ditugula urte osoan zehar entzun, ikusi eta pairatutakoak. Elurrarekin batera iragana estaltzen duen izara zabalduko balitz bezala. Amama Emiliaren familiarentzat, ordea, elurra sakanaketaren errepideak arriskutsuagoak bihurtzen dituen zigorra da. Bihotza eguberrietako abestiekin, koloretako argiekin eta familia kontuekin beratu nahi digunean, amama Emiliaren familiak ez daki besterik gabe irribarre egiten. Hutsune handia sentitzen baitu erraietan. 764 zulok osatzen duten hutsune iluna.

Badirudi abenduan samurragoak izan behar dugula, eta ahaztu egin behar ditugula urte osoan zehar entzun, ikusi eta pairatutakoak. Elurrarekin batera iragana estaltzen duen izara zabalduko balitz bezala.